

ZEHAR!
lehiaketaren araudia
2026
« Zure Euskal Herria AuRkeztu! »

1.artikulua - [Antolatzaileak](#)

Lehiaketa Euskal Museoaren Adiskideen Elkarteak (SAMB delakoa) antolatzen du, elkartearen partaidea Baionako Euskal Museoa izanez.

2.artikulua - [Lehiaketaren helburua](#)

Bideo hoberenen saritzea da lehiaketaren helburua, gizarte-sareetan argitaratzeko, publiko zabalenak ikus dezan. Bideoaren gaia, euskal historiari edo kulturari lotua izan beharko da. Bideoa, pertsonala eta sortzailea izan beharko da ere. Euskara, frantsesa, ingelesa eta gaztelania erabil daitezke, bakoitza bakarrik ala molde konbinatuan.

3.artikulua - [Gaia](#)

Parte hartzaileei, euskal historiaren eta kulturaren inguruko sorkuntza originala proposatzeko eskatua zaie. Euskal kultura, zer da? UNESCOren definizioaren arabera, Euskal Herriko gizartearen ezaugarri izpiritualak, materialak, intelektualak eta afektiboak, hala nola arteak, bizimoduak, balioen sistemak, ohidurak eta sinesmenak. Baionako Euskal Museoa eta bere baliabideei buruzko aipamen esplizitu bat bederen izan behar du errealizazio bakoitzak.

4.artikulua - [Eragindako publikoa](#)

Gutienik 16 urte eta gehienik 23 urte 2026ko ekainaren 30ean izanen duen nornahik lehiaketan parte har lezake, hala nola lizeo eta unibertsitateko ikasleek, apendizek eta gazte aktiboek. Taldean parte hartuz gero (gehienik 4 pertsona), kide guztiek adin-muga errespetatu beharko dute. Adingabeko parte-hartzaileentzako guraso-baimena eskatuko da. Epaimahaiak edozein momentutan egiazta dezake adineko baldintza beterik dela eta berantenez sari banaketa baino lehen.

5.artikulua - [Izen ematea](#)

Lehiaketan parte hartzea urririk da.

Parte-hartzaileak edo parte-hartzaile talde bakoitzak bideo bakar bat igor dezake.

Taldeek ordezkari bat izendatu beharko dute antolatzaileekin harremanetan egoteko aise.

Izena emateko, SAMBren webgunean den txostena erabil (samb-baiona.net).

👉 **2026ko urriaren 18a baino lehen,**

Parte hartzailearen izen ematea e-mailen bidez konfirmatua izanen da.

Informazio-eskaera guztiak helbide elektroniko honetara bidali behar dira :

zehir@samb-baiona.net

6.artikulua - [Egitasmoen jasotzearen epea](#)

Errealizazioa osatzen duen fitxategi digitala e-maila edo beste aplikazio baten bidez

zehir@samb-baiona.net e-helbidera bidali behar da,

👉 **2026ko urriaren 31a baino lehen.**

7.artikulua - [Egitasmoa azaltzeko beharrezko idazkia](#)

Parte-hartzaile edo talde bakoitzak testu laburra (10-20 lerro) bidali beharko du, sortze-izapidea aurkezteko, eta Baionako Euskal

Museoarekiko lotura argi azalduz. Bertan, besteak beste, adimen artifiziala

zein baldintzatan erabilia dukeen zehaztu beharko du.

Testu hau informatiboa baizik ez da izanen, epaimahaiari argitasuna emateko xedez egina. Ez da irizpide gisa kontuan hartuko sariaren emateko.

8.artikulua - [Epaimahaia eta sailkapen-irizpideak](#)

Epaimahaia, SAMBko kide, Baionako Euskal Museoaren ordezkari eta

beste partaide batzuek osatuko dute. Bidalitako bideoak honela baloratuko dituzte :

- Originaltasuna eta sormena
- Estetika
- Kalitate dokumentala
- Zentzu pedagogikoa
- Euskal Herriarekilako eta Euskal Museoarekilako loturaren egokitasuna

9.artikulua - [Sariak](#)

Epaimahaiak emanen dituen sariak :

1. saria : 1.000 € - 2. saria : 500 € - 3. saria : 250 €.

Epaimahaiak sari guztiak ez emateko eskubidea izanen du, estimatzen balinbadu aurkeztutako obrek ez dituztela araudiaren baldintzak betetzen.

4. eta 5. sariak ere bana litezke, epaimahaiak hola erabakitzen badu: Baionako Elkar liburu-dendako 125 €-ko opari-txartela izanen da. 2026ko azken hiruhilekoan, Baionako Euskal Museoan egingen da sari banaketa, ekitaldi publikoan.

10.artikulua - [artikulua](#). - Jabetza intelektual

Parte-hartzaileek beren sorkuntzaren originaltasuna bermatzen dute eta baimenik gabe autore-eskubiderik ez dutela erabiliko segurtatzen dute

Antolatzaileei baimena emaiten diete beren lana erreproduzitzeko eta zabaltzeko (berezi gizarte-sareetan), ordainsaririk gabe.

Eskubide moralak autoreen jabetza izaten jarraikiko dira.

11.artikulua - [artikulua](#). – Araudien onartzea

Lehiaketan parte hartzeak arautegi hau oso-osorik eta salbuespenik gabe onartzea dakar.

.